

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### LANTARONGO UDALA

#### Bake epaile titularren eta ordezkoren karguak betetzeko deialdia

Botere Judizialaren Lege Organikoaren 101. eta 102. artikuluek xedatutakoa betetzeko, jakinarazten da udalbatzak bake epaile titularren eta ordezkoren karguak lau urteko aldi batez beteko dituzten pertsonak izendatzeko proposamena egingo diola Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiaren Gobernu Batzordeari.

Botere Judizialaren Lege Organikoak ezarritakoaren arabera, prozeduran parte hartzeko honako baldintza hauek bete behar dira:

- Adin nagusikoa izatea.
- Nazionalitate espainiarra izatea.
- Gutxienez, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako titulua edo baliokidea izatea.

– Ezgaitasun edo bateraezintasunen bat ez izatea (Botere Judizialaren Lege Organikoaren 303. artikulua eta 389tik 397ra arteko artikulua eta Bake Epaileen 3/1995 Arautegiaren 23. artikulua).

Interesdunek Lantarongo Udaleko erregistro orokorrean aurkeztu behar dute eskaera; horretarako, hamabost egun baliodun izango dituzte, iragarki hau ALHAOn argitaratzen denetik aurrera, eta agiri hauek ere aurkeztu beharko dituzte:

1. NANaren fotokopia.
2. Zigor aurrekaririk ezaren ziurtagiria.
3. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako titulua edo baliokidea.
4. Zinpeko adierazpena, honako hauen gainean:
  - a) Ez dela doluzko delituengatik kondenatua izan edo, hala badagokio, errehabilitazioa lortu duela.
  - b) Ez dagoela prozesaturik edo erruztaturik dolozko delituengatik, edo, hala badagokio, auzi-petua izan den kausan absoluzioa edo artxibatze autoa eman zaiola.
  - c) Eskubide zibil guztien jabe dela.
  - d) Ez dagoela fisiko eta psikikoki ezgaituta epaile eginkizunetarako.
  - e) Ez dagoela Botere Judizialaren Lege Organikoaren 303. artikuluan eta 389tik 397ra arteko artikuluetan eta Bake Epaileen 3/1995 Arautegiaren 23. artikuluan jasotako ezintasun edo bateraezintasun kausaren baten eraginpean.

Guztiak jakin dezaten argitaratzen da.

Komunioi, 2024ko apirilaren 11

*Alkatea*  
**JOSÉ LUIS SALVIDEA MARTINEZ**